

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Esfortzu fisikoaren intentsitatea eta iraupena erregulatuz eta dosifikatuz nork bere gaitasun fisikoak hobeto kudeatzea eta horrek osasunarekin duen erlazioaz jabetzea, ikaslearen garapen pertsonalean laguntzeko.	1.1. Bere ezaugarri fisiko/psikologikoak ezagutzen eta onartzen ditu eta hobetzeko ahalegina egin du.
2. Egunerokoan norberaren janzkeraz arduratzen da, era berean ikastolako ekipamendua zaintzeko gaitasuna erakusten du.	2.1. Planteatutako jardueretan gustora hartzen du parte eta jarrera positiboa du. 2.1. Heziketa fisikoa egitean arropa eta higiena zaintzen ditu.
3. Atletismoko jarduerak gaitasun motorra garatzen laguntzen dute, batez ere doitasunez mugitzeko gaitasuna. Izan ere, egin beharko dituzten ekintza motorrei esker, espazioa eta denbora menderatzeko gaitasuna garatu beharko dute.	3.1. Estereotipo motorrak automatizatzekeo jarduerak ere egingo dituzte, eta mugimenduak automatizatzea eskatzen duten egoera horien bidez, ikasleek beren trebezia-maila handitzea lortuko dute.
4. Ikasleek ingurune egonkorretan taldeko kirol eta jolasetan aurkariaren taldeari irabazteko estrategiak —zehazki, elkarlanerako eta aurka egiteko estrategiak— erabiltzen jakitea, eta, horren ondorioz, taldeko kirolak praktikatzean eraginkorragoak izatea lortzea.	4.1. Talde kirolak praktikatzekeo beharrezkoan diren oinarrizko gaitasun fisikoak hobetzeko jarduerak egin ditu, arau eta ezaugarriak aplikatu ditu. 4.2. Kirol desberdineko bakarkako teknika bilduma hobetzeko jarduerak egin ditu, arau eta ezaugarriak aplikatuaz.